


SARRERA

Unax Casanova, Julene Rodriguez, Malen Larrañaga, Irati Diaz eta June San Roman gara, Durango BHIko 2. batxilergoko ikasleak. Startinnova plataformaren bitartez, gure egitasmoa, GreenWave, aurkeztera gatoz. Ideia hau etorkizun batean gure mundua hobetzeko asmoz pentsatu dugu.



Gaur egungo gizarte gero eta industrializatuago honetan, energiaren kontsumoa etengabe hazten ari dela ohartu gara, eta horrek ingurumenari kalte larriak eragiten dizkio. Erregai fosilen erabilera masiboak klima-aldaketa, kutsadura eta baliabide naturalen agortzea ekarri ditu, eta ondorioz, energia-iturri jasangarriagoen beharra gero eta nabarmenagoa da.

Testuinguru honetan, algetatik sortutako bioerregaiak alternatiba eraginkor eta berritzaile gisa agertzen dira. Algek hazkuntza azkarra dute, lur emankorrik behar ez dute eta CO₂ xurgatzeko gaitasun handia dute; beraz, ingurumenarekiko errespetuzko energia-iturri bihur daitezke. Horrez gain, algen bidez sortutako bioerregaiak kutsadura-maila txikiagoa sortzen dute eta baliabide berriztagarriak izanik, etorkizun energetiko iraunkorrago baten oinarriak ezartzen laguntzen dute.



Gure ustez, algetan oinarritutako bioerregaiak erabiltzea ezinbesteko pausua da gizarte jasangarriago baterantz. Horregatik, lan honen bidez teknologia honen funtzionamendua, onurak eta etorkizunerako dituen aukerak aztertzea proposatzen dugu, ingurumenaren babesa eta gizartearen ongizatea uztartzeko helburuarekin.